

M
LH6



Zuzenketarako koadernoia

Izen-deiturak

Ikastetxea

Taldea

Herria

Data

Matematikako gaitasuna

LHko 6. maila
2015-2016

Argibideak

Proba honetan testu batzuk irakurriko dituzu eta irakurri duzunari buruzko galdera batzuei erantzunen diezu.

Galderak mota batekoak baino gehiagokoak dira. Galderetako batzuek lau erantzun dituzte, aukeran, eta haietan zuzena dena aukeratu eta haren ondoan dagoen letra biribil batez inguratu behar duzu. Adibidez:

Zenbat dira $2 + 5$?

- A. 2
- B. 6
- C. 7
- D. 11

Erantzuna aldatzea erabakitzen baduzu, ezabatu **X** batekin lehen erantzuna eta erantzun zuzena biribil batez ingura ezazu, ondoko adibide honetan egin den bezala:

Zenbat dira $2 + 5$?

- A. 2
- A. 6
- B. 7
- C. 11

Beste galdera batzuetan, aldiz, puntuekin adierazitako tartean erantzuna osatzeko eskatuko dizute:

Esan zenbat angelu eta zenbat alde dituen triangelu batek.

.....



Proba hau egiteko 60 minutu dituzu.

Nafarroari buruz


Ikastetxean Nafarroako Foru Komunitatea nolakoa den ikasi dugu eta, Interneten ikertu ondoren, hona hemen ebatzi beharko dituzun egoera batzuk:

1. Bertizko Jaurerrian, apirilean, batez besteko prezipitazioa 330 litro/m^2 izan da. Bertizen azalera $12,3 \text{ km}^2$ -koa dela jakinik, apirilean zenbat litro ur erori da Bertizen?



Problema ebazteko honakoa egin behar da:


- A. $12,3 \times 10^3$ egin eta emaitza bider 330 egin.
B. $12,3 \times 10^4$ egin eta emaitza bider 330 egin.
C. $12,3 \times 10^5$ egin eta emaitza bider 330 egin.
D. $12,3 \times 10^6$ egin eta emaitza bider 330 egin.
2. 2015eko Xabierraldietan 1.825 turismo eta 94 autobus zenbatu ziren. Foruzaingoak uste du aipatutako ibilgailuetan 12.188 pertsona bertaratu zirela Xabierra. Estimazio hori egiteko turismo bakoitzean 4 pertsona zihoazela jo zuten foruzainek. Zure ustez, autobus bakoitzean zenbat pertsona joan ziren?



- A. 50
B. 51
C. 52
D. 53

3. Iruñeko entzierroko hesiak 1.800 ohol ditu. Ohol bakoitzaren neurriak hauek dira: 8 cm zabal, 20 cm altu eta 280 cm luze. Zein da ohol bakoitzaren bolumena cm^3 -tan?


- A. 44.800 cm^3
- B. 4.480 cm^3
- C. 5.600 cm^3
- D. 2.240 cm^3



4. Nafarroako Gobernuko web orri batetik informazio hau atera dugu:

Herria	Batez besteko gehieneko temperaturak 2015eko urtarrila	Prezipitazio osoa 2015eko urtarrila	Euri egunak 2015eko urtarrila
Abaurrea	5,9	340	17
Buñuel	11,9	21,4	6
Los Arcos	10,4	67	8
Erriberri	9,8	87,8	8
Iruña	9,6	170,1	12

Egin ezazu taulako temperaturekin lerro diagrama bat. Biribil itzazu zenbakiak unitatera.



Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Beste erantzun batzuk.
1	1	Grafikoa ongi egin du eta puntu guztiak ongi irudikatu ditu.

5. Zein da taulako herrietako euri egunen batez besteko aritmetikoa?

A. 10,2 egun


B. 10,4 egun

C. 8 egun

D. 11,5 egun

Herria	Euri egunak 2015eko urtarrila
Abaurrea	17
Buñuel	6
Los Arcos	8
Erriberri	8
Iruña	12

6. Irudiko Iruñeko plano 1:7000 eskalan dago (papereko 1 cm = 7000 cm errealitatean).



Planoan 1. eta 2. autobus geltokien arteko distantzia 4,7 cm-koa bada, zein da errealitatean bi geltoki horien artean dagoen distantzia, metrotan?


$$4,7 \times 7.000 = 32.900 \text{ cm}$$

$$32.900 : 100 = 329 \text{ m}$$

1. eta 2. geltokien artean dagoen benetako distantzia**329**..... m-koa da.


Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Beste erantzun batzuk.
1	1	Problema erabat ongi planteatu du, baina huts egin du eragiketaren batean.
2	2	Problema erabat ongi planteatu du eta erantzun zuzena eman du.

7. Erriberri kaletik baldin banoa eta Nafarroa Behereko etorbidetik ezkerretara, 2. geltokirantz, jotzen badut, ibilbidean zer angelu mota egingen dut?



- A. Zuzena
- B. Zorrotza
- C. Laua
- D. Kamutsa**

8. \hat{A} eta \hat{B} angelu betegarriak badira (bien arteko batura 180° da), eta \hat{A} -k $59^\circ 45' 55''$ neurtzen badu, zein da \hat{B} -ren neurri zehatza?



$$\begin{array}{r}
 180^\circ \quad 0' \quad 0'' \\
 - \quad 59^\circ \quad 45' \quad 55'' \\
 \hline
 \mathbf{120^\circ \quad 14' \quad 05''}
 \end{array}$$

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Beste erantzun batzuk.
1	1	Kalkuluak ongi egin ditu eta erantzun zuzena eman du. $120^\circ 14' 05''$

Erosketetan superrean

Larunbatean erosketak egitera supermekatura joan ginen eta propagandan eskaintza hauek ikusi genituen:



ERRONKARI GAZTA

$\frac{1}{4}$ kg 4,25 €



**NAFARROAKO
ZAINZURIA**

500 g 2,80 €



SARDINAK OLIOTAN

1. unitatea: 1,20 €

2. unitatea: -%70



JANTZIEN ESKAINTZA BEREZIA

%30eko beherapena

jantzi guztietan



LARUNBATEKO ESKAINTZA BEREZIA

%21eko beherapena telebistetan

9. Eskaintzan zeuden 4 sardina-poto erosi ditugu. Zenbat ordaindu dugu?

- A. 4,80 €
- B. 3,12 €**
- C. 4,08 €
- D. 3,80 €



10. 400 gramo Erronkari gazta erosi dugu. Zenbat ordaindu dugu?

0,250 g ----- 4,25€
 0,400 g ----- X

X= 6,80 €



ERRONKARI GAZTA

$\frac{1}{4}$ kg 4,25 €

Problema beste modu batzuetan ebatz daiteke:

- Lehenik, kg 1en prezioa kalkulatu
- Lehenik, g 1en prezioa kalkulatu

400 g Erronkari gazta **6,80** € ordaindu dugu.

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Beste erantzun batzuk.
1	1	Problema erabat ongi planteatu du, baina huts egin du eragiketaren batean.
2	2	Problema erabat ongi planteatu du eta erantzun zuzena eman du.

11. Era berean, 1 kg eta 250 g Nafarroako zainzuri erosi dugu. Zenbat ordaindu dugu?



**NAFARROAKO
ZAINZURIA
500 g 2,80 €**

- A. 5,6 €
B. 7 €
C. 8,4 €
D. 11,2 €

12. Mahuka motzeko elastiko batek 18 € balio bazuen, zenbateko deskontua egingen digute?



**JANTZIEN ESKAINTZA BEREZIA
%30eko beherapena
jantzi guztietan**

- A. 4,4 €
B. 6 €
C. 5,4 €
D. 3,8 €

13. Erosketa osoa 27,74 €-koa izan da. Amak honela ordaindu du:

20 €-ko billete 1, 5 €-ko billete 1 eta 8 txanpon

Ez badiote ezer itzuli, zer txanpon entregatu ditu nire amak?
Idatzi egon daitezkeen bi soluzio:

8 txanponak batuta zenbatekoa hau izan behar da: $27,74€ - 25€ = 2,74€$

		Erosketa ordaintzeko entregatutako txanpon kopurua							
Txanpon mota	Balioa	soluzioak							
	2 €	1	1	1	1				
	1 €					2	2	2	2
	50 zentimo	1	1			1	1		1 5
	20 zentimo			3	2	1		3	1
	10 zentimo	2		1	3		2	1	1
	5 zentimo		4						2
	2 zentimo		2	1	2		1	2	2 2
	1 zentimo	4		2		4	2		
Entregatutako txanponak, guztira		8	8	8	8	8	8	8	8

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Beste erantzun batzuk.
1	1	Izan daitezkeen soluzioetako BAT eman du.
2	2	Izan daitezkeen soluzioetako BI eman ditu.

14. Kafetegian sartu gara eta erosketa tiketa zikindu zaigu. Zenbat balio zuen kiribilak ("karakola" k)?

- A. 0,65 €
- B. 1,30 €
- C. 1,45 €**
- D. 1,95 €

15. Zenbat diru itzuli digute?

- A. 3,85 €**
- B. 2,85 €
- C. 3,75 €
- D. 3,95 €

16. BEZaren benetako kuota 5,59ren %10 da (0,559). Hala ere, tiketean esaten da 0,56 dela. Beraz, biribildu da...

- A. Milarenera
- B. Ehunenera**
- C. Hamarrenera
- D. Unitatera

17. Supermerkatuko eskaintzetan zenbaki hamartarrak, zatikiak eta ehunekoak ikusi ditut. Baieztapen hauetako zein da zuzena?

- A. Zenbaki hamartarrek, zatikiek eta ehunekoek ez dute elkarren artean erlaziorik.
- B. Zenbaki hamartarrek zatikiekin erlazioa dute, baina ez ehunekoekin.
- C. Zenbaki hamartarrek, zatikiek eta ehunekoek elkarren arteko erlazioa dute.**
- D. Zenbaki hamartarrek ehunekoekin erlazioa dute, baina ez zatikiekin.



Izaga kafetegia
IFZ: 524764210
Pagadi kalea, z.g. 31999 Urbikain
Tel. 948 002648

Data: 2016-IV-5 Ordua: 12:52

Kontsumizioa	Kopurua	Prezioa	Zenbatekoa Osotara
Kafesnea	1	1,30	1,30
Kiribila	2		2,90
Freskagarria	1	1,95	1,95

Eskudirutan emandakoa..... 10 €

Atzerakoak (kanbioak)..... 

Zerga oinarria	BEZa	Kuota	Guztira
5,59	10%	0,56	6,15

Elkartasunerako dirua

Nafarroan badira familia behartsuak eta haiei laguntzeko dirua biltzeko elkartasun kanpainak egiten dituzte Cáritasek, Gurutze Gorriak eta gobernuz kanpoko beste erakunde batzuek.



18. Ikastetxeko gurasoen elkartea dirua biltzen ari da. Hartara, zozketa bat antolatu dute; zozketan 215 € balio duen tableta bat eta 485 € balio duen ordenagailu eramangarri bat sartu dituzte. Gainera, zozketa antolatzeko eta publizitatea egiteko gastuak 125 €-koak dira.

Gurasoen elkarteak gastu guztiak ordaindu behar ditu eta, horretaz gainera, 600 € lortu nahi ditu gobernuz kanpoko erakundeei emateko. Txartel bakoitzak 0,75 € balio du. Zenbat saldu beharko dituzte?

Gastuak, osotara: $215 + 485 + 125 = 825$ €

Bildu beharreko dirua: $825 + 600 = 1.425$ €

$1.425 : 0,75 = 1.900$ txartel.

Gurasoen elkarteak **1900** txartel saldu beharko ditu.


Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Beste erantzun batzuk.
1	1	Problema erabat ongi planteatu du, baina huts egin du eragiketaren batean.
2	2	Problema erabat ongi planteatu du eta erantzun zuzena eman du.

19. Kanpaina bultzatzeko horma-irudi bat egin nahi dugu koloretako kartoi meheak erabiliz. Horretarako, plastikako irakasleak kartoi mehe gorriak, berdeak eta horiak ekarri ditu.

Kartoi meheetako $\frac{1}{3}$ gorriak dira eta $\frac{1}{5}$ berdeak.

Kartoi meheetako zenbat dira horiak? Eman zatikia.

- A. $\frac{3}{5}$
 B. $\frac{8}{15}$
 C. $\frac{7}{15}$
 D. $\frac{6}{8}$



20. Kalkulatu da diru-bilketako $\frac{2}{5}$ sarietarako erabili dela, $\frac{1}{10}$ gastu orokorretarako eta gainerakoa irabaziak direla.

1.500 € bildu badira, zenbat euro irabazi dira?

Gastuak: $\frac{2}{5} + \frac{1}{10} = \frac{4}{10} + \frac{1}{10} = \frac{5}{10} = \frac{1}{2}$

Irabaziak: $1 - \frac{1}{2} = \frac{1}{2}$

$\frac{1}{2} \times 1.500 = 750 \text{ €}$




Lortutako irabaziak: **750** €.

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Beste erantzun batzuk.
1	1	Problema erabat ongi planteatu du, baina huts egin du eragiketaren batean.
2	2	Problema erabat ongi planteatu du eta erantzun zuzena eman du.

Ikasturte bukaerako festa

Azken klase-egunean ikasturte amaierako festa egin behar dugu eta 6. ikasmilako neska-mutilok antolatuko dugu. Horretarako, jolastokia zenbait gunetan banatu dugu, irudian ageri den bezala:



21. Zein da jolastokiaren azalera?


- A. 31.900 m²
- B. 31.600 m²
- C. 31.200 m²
- D. 10.800 m²

22. Gurasoen elkarteko kideendako gordetako gunea triangelu isoszele bat da. Kalkula ezazu haren azalera.

- A. 900 m²
- B. 600 m²
- C. 450 m²
- D. 300 m²


23. Haurren gunea hesiz inguratu behar dugu, aldeetako batean 4 metroko sarrera libre utziz. Hesiak 2 metro badituzte, zenbat hesi beharko ditugu?

- A. 160 hesi
- B. 158 hesi**
- C. 140 hesi
- D. 120 hesi



24. Jolasgunean irudiko erruleta jarri dugu. Saria lortzeko erruletak sektore BERDEan gelditu behar du. Zein da saria lortzeko aukera?

- A. $\frac{2}{8}$
- B. $\frac{1}{10}$**
- C. $\frac{1}{9}$
- D. $\frac{2}{10}$



25. Erruletaren diametroa 80 cm-koa da eta eta metro 1eko aldea duen zurezko oinarri karratu baten gainean dago. Ikusten den zuraren ageriko azalera zenbat cm^2 -koa da?

$$\text{Azir} = \pi \times r^2 = 3,14 \times 40^2 = 3,14 \times 1.600 = 5.024 \text{ cm}^2$$

$$\text{Akar} = 1 \text{ m}^2 = 10.000 \text{ cm}^2$$


$$A = 10.000 - 5.024 = 4.976 \text{ cm}^2$$

Zuraren ageriko azalera**4976**..... cm^2 -koa da

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Beste erantzun batzuk.
1	1	Problema erabat ongi planteatu du, baina huts egin du eragiketaren batean.
2	2	Problema erabat ongi planteatu du eta erantzun zuzena eman du.

26. Jolasetako batean 3 poltsaren artetik bat aukeratu behar duzu. Ateratzen duzun lehen bola zuria bada saria lortuko duzu. Beraz, zein poltsa komeni da aukeratzea?

- A. 1. poltsa
- B. 2. poltsa
- C. 3. poltsa
- D. Berdin da



27. Beste jolas batean badira etiketatu gabeko 5 poto. Ezarri beharreko etiketak azukrea, gatz, kakaoa, irina eta kafea dira. Badakigu poto bakoitzak zenbat pisatzen duen eta arrasto hauez lagunduta...

Azukre potoaren pisua irin potoaren $\frac{1}{3}$ da	Irin potoak kakao potoak baino gutxiago pisatzen du	Kafe potoak gatz potoak baino gehiago pisatzen du
--	---	---

Ezarri poto bakoitzean bere etiketa:




Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Beste erantzun batzuk.
1	1	Izen guztiak behar den potoan ezarri ditu.

28. Ikastetxea utzi behar dugunez, irakasle bakoitzari argazki bat oparitu nahi diogu, ikasle guztiek sinatua eta irudian ageri den moduan markoztatua.


8 marko egin nahi ditugu eta horretarako 2,20 m luzeko listoiak ditugu. Marko guztiak egiteko zenbat listoi beharko ditugu?

- A. 2
- B. 3
- C. 4**
- D. 5



Inkesta

Ikastetxean inkesta egin dugu ikasleek telebista ikusten zenbat denbora ematen duten jakiteko. Emaitzak grafikoan irudikaturik daude.



29. Inkestan zenbat neskak parte hartu dute? Mutilak zenbat izan dira?

73 neskak eta 66 mutilek parte hartu dute

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Beste erantzun batzuk.
1	1	Bi erantzunetako bat zuzen eman du.
2	2	Bi erantzunak zuzen eman ditu.

30. Zenbat ikaslek (neskak eta mutilak) ikusten dute telebista 3 orduz edo gutxiagoz?

- A. 30 ikaslek
- B. 44 ikaslek
- C. 65 ikaslek
- D. 109 ikaslek**

31. Inkestan parte hartzerik izan du egunero telebista 4 ordu eta erdiz ikusten duen ikasleren batek? Arrazoi ezazu zure erantzuna.

.....

.....

.....

Zuzenketarako irizpideak		
Kodea	Puntuazioa	Erantzuna/k
0	0	Beste erantzun batzuk.
1	1	<ul style="list-style-type: none">▪ Bai. Telebista hiru orduz baino gehiagoz ikusten dutenen taldean legoke.▪ ...